

# Pio Baroja Nessi IDAZLEA

**P**IO BAROJA IZANGO DA SEguruenik idazle ezagunena eta irakurriena Euskal Herrian. Mende honetan. Herri askotan egingo dugu topo haren zale porrokatu anonioren batekin, jende xumea maiz askitan, gaztetan irakurtzen ohitua eta literatura paradigma guztiak, edo ia guztiak, noizbait idazle donostiarragana bildu zituen. Ez dakit oraingo gazteen artean horrelakorik gertatzen den, ez dut uste. Baina zerk gatibatu ditu bereziki barojazale horiek guztiak? Zaila erantzuten, ez nintzateke ni halako ihardespene biribila ematen ausartuko, baina zerbait nabarmentzearen, Pio Barojak egunoroko mundu «errealaren» aldean zehazturiko distantzia, tartea, aipatuko nuke eta, beraz, literaturak irudimenezko mundu bat itxuratzerakoan, eta ez soil-soilik ihesbide bat eskaintzerakoan, duen garrantzia azpimarratu nahi nuke horrenbestez.

Gure mende honetan ia 56 urte eman zituen arren, Baroja ez da XX. mendeko idazlea izan. Ez zaizkio mende horretako aldakuntza handiak interesatu eta distantziatik jokatu du beti haien aurrean. Giza eta, neurri apalago batean, gizarte grinen arteko dinamika gailentzen da uneoro anarkisten eta sozialisten proiektuetan eta munduan, ez ideologia edo ekintza politikoa. Ez dago langileriarik, ez dago klase-borrokari. Mesfidantza dakar distantziak. XIX. mendeko gizartearen zuen begi-bistan, behe aristokraziako pertsonaiek, militarrek, funtzionarioek eta burges berriek osatzen dute ez gutxitan haren mundua, baita miseriak ere, jakina, baina miseriak neke handiak ditu geroaren aurrean, ez du itxaropena itxuratzeko kemenik. Norbera da bidea.

Distantziatik jokatzeko du, era berean, euskal nortasunaren aurrean. Euskalduna da Baroja, baina bere garaiko beste askok bezala, ez du Euskal Herrian proiektu nazionalik ikusi nahi, ignoratu egingo du abertzaletasuna, lekuz kanpokoa irudituko zaio. Ez da, gainera, sabinismoaren eduki ideologikoez fidatzen. «Bost axola ideiek eta aberriek; baserria da ene aberri bakarra eta, gero, mundu zabala». Donostian sortua da Baroja, euskaraz mintzo dira bertako biztanleak, euskara ikasi du berak ere etxean, euskaraz idazten du bere aitak... baina astunegia da Espainiaren zama. Han eta hemen ibili

## Urruntasun hurbiletik

da zazpi urte dituenetik aurrera, Madrilera joango lehenik bere familiarekin eta, Iruñe Zaharrean urte batzuk egin ondoren, Madrilera berriro. Medikuntza karrera bukatutakoan, sendagile postua eman diote Zestoan: «Zestoan hasi nintzen euskaldun sentitzen, eta berriro heldu nion arrazaren hariari, aspaldian galdua bainuen». Barojaren euskal unibertsoetik kanpo zeuden hiriak, XIX. mende bukaera hartan hainbestean aldatzen ari ziren hiriak, eta baserri giroan berreskuratu bide zuen euskal nortasuna. Kontrako norabidean jo zuen Sabino Aranak: ez zuen hiriak ukatu.

### Eragin ukaezina

XX. mendeko emanaren aurrean betizu samar jokatu bazuen ere (gogoan har dezagun, halaz ere, 1900. urtetik aurrera argitaratu zituela Barojak bere nobela guztiak), ezin uka dezakegu haren eragina. Espainieraz idatzi zuen eta leku bat egin zioten Espainiako idazle handien artean. Estiloz hainbatean axolatu ez zen idazlea zela azpimarratu dute batzuek. Ez da horrelakorik. XIX. mendean ausarki erabili ziren artifiziozko molde guztietatik urrun, idazkera argia, zehatza eta bizkorra bideratu nahi izan zuen Barojak, eta ukitu etnikoa ere eman zion joera horri: euskaldunaren inguruan itxuratu zuen arketipo indibidualista ekintzazale bizkorren ordaineko bihurtu zuen bere idaz-moldea eta axolagabea aldarrikatu zuen hizkuntza arauen aurrean: «Euskaldun onen antzera, inoiz ez dut halako begirunez jokatu Gramatika izena duen ohorezko andere errespetagarri horren aurrean».

Barojaren nortasun euskalduna dute ahotan guztiak. Baina hain ugari agertu zizkigun pertsonaia euskaldunak neurri batean baizik ez zegozkion Barojaren garaiko euskal munduari. Beti erdaraz idatzi bazuen ere, euskaldunak ziren bere pertsonaia asko, eta halakotzat aurkeztu zituen. Alabaina, bere nobeletan latzen

tzian gorderiko euskara pape-rera orduko, txiro eta eskas agertzen zaigu, txoro ez gutxitan, betegarri bitxi. Euskara ez da idazteko, ezta luzaz hitz egiteko ere: ekintzak ez du solasaren beharrik, ezta oroigarrienik ere.

### Euskararik gabeko euskal herritarrak

XX. mendeko Euskal Herrian, ordea, izugarri emendatu zen erdaldunen kopurua. Gero eta gehiago ziren euskararik gabeko euskal herritarrak, Barojak aintzat hartu ez zituen arren, bere nobelen irakurle handi bihurtuko zirenak. Bererik irakurri gabe geldituko ziren betikoz, nobela haiekako pertsonaia batzuegan ustez erretratatu zituen euskaldun isil haiek. Espainiarrentzat idatzi zuen bereziki Barojak.

Betikoko famatu zuen Baroja

aldarrikapen asmotsu batek, bere bizitzan egingo zuen barrenetakoak: «Bidasoako Errepublikak sortzea da ene ideala, honako lema honen arabera: *Eulirik, frailerik eta karabinerorik gabe*». Era guztietako zomorrorik gabeko errepublika alegia. Erreka osoko kontrabandista isilak eta Irungo aduana komisio-nista errepublikazale algartsu burgestu berriak zituen gogoan aldarri hori egin zue-nean. Baina bazekien errepublika horrek ez zuela aukerarik momentu hartan.

Distantziatik idatzi zuen Barojak, mesfidantzaz, eta halaxe hartzen dugu geuk ere gaurkoan. Ez ginateke, ordea, guztiz zuzen ari izango gurean modu batean edo bestean lekurik ez duela esango bagenu.

• Joxan Elorri •



- 1872 ♦ Donostian jaio zen.
- 1879 ♦ Madrilen bizi da, familiarekin.
- 1881 ♦ Iruñean bizi da.
- 1888 ♦ Medikuntza ikasketak hasi zituen.
- 1894 ♦ Sendagile jarri zen Zestoan.
- 1896 ♦ Zestoa utzi eta Madrilen hasi zen lanean, bere izebaren okindegiko zuzendari.
- 1900 ♦ Lehen liburua argitaratu zuen, *Vidas sombrías*. Urte berean plazaratu zuen *La casa de Aizgorri* nobela.
- 1903 ♦ *El mayorazgo de Labraz* nobela kalean.
- 1904-05 ♦ «La lucha por la vida» trilogiara bilduriko hiru nobelak, Madrilgo auzo pobre eta langileetan girotuak, argitaratu zituen.
- 1909 ♦ *Zalacaín el aventurero* nobela argitaratu zuen. Horrenbestez osatu zuen «Tierra Vasca» izeneko trilogia (*La casa de Aizgorri* eta *El mayorazgo de Labraz* nobelekin batean)
- 1911 ♦ *Las inquietudes de Shanti Andía* nobela kalean. Urte berean argitaratu zuen *El árbol de la Ciencia*, bere liburu ederrena aditu batzuen ustez.
- 1912 ♦ Itzea etxea erosi zuen Beran. Etxe horretan eta urte berean hil zen Serafin Baroja Zornotza, bere aita.
- 1913 ♦ *Aprendiz de conspirador* nobela kalean, Aviraneta agente antkarlistaren bizitza kontagai.
- 1917 ♦ *Juventud, egolatría*, oroitzapen eta gogoeta liburua kalean.
- 1922 ♦ *La leyenda de Jaun de Alzate* liburua kalean. Ezinbestekoa da liburu hau Barojaren euskal nortasuna zertan den ulertzeko.
- 1934 ♦ Espainiako Hizkuntza Akademiako kide egin zuten.
- 1936ko uztaila ♦ Donibane-Lohizunera jo zuen, gerra zibilaren hasieran karlistek ordu batzuetan atxilo eduki ondoan.
- 1937 ♦ Berara itzuli zen, Parisen hainbat hilabetez egon ondoren. Beran eta Madrilén bizi izan zen hil arte-raino.
- 1956 ♦ Madrilén hil zen, urtebete eri egon eta gero.